

# KOPLAK AITAREN HERIOTZAGATIK

JORGE MANRIQUE

Jatorrizko Izenburua: “Coplas por la muerte de su padre”

© Marjinalia Bilduma

© Traducción: Xabier Galarreta

1999. urtea (uztaila)

Lege-Gordailua: SS-767/99

1

Zatoz, lo zauden arima hori,  
argitu zentzua eta esnatu  
behaturik  
nola pasa den bizitza,  
nola heltzen den heriotza  
isil-isilik,  
zeinen azkar doan plazerra,  
nola, hartaz gogoraturik,  
mintzen gaituen;  
nola, gure iduriko,  
joandako edozein garai  
izan zen hobe.

2

Oraina ikusten dugunez  
une batean joana  
eta amaitua,  
jakituriaz jokatzera,  
etorrigabea joko dugu  
igarotzat.  
Ez bedi inor engania, ez,  
pentsatzen iraungo duela  
espero duenak  
ikusi zuenak baino luzeago,  
zeren dena da igaro-beharrekoa  
nolabaiteko eran.

3

Gure bizitzak ibaiak dira  
itsasora doazenak,  
hiltzera;  
hara doaz jaurerriak  
zuzen joanak bukatzera  
eta iraungitzera;  
hara ibai nagusiak,  
hara emari ertainekoak  
eta tipiak ere bai,  
behin iritsita berdinak dira-eta  
izerdiz bizi direnak  
eta aberatsak.

AIPAMENA

4

Bazter ditut olerkari  
eta hizlari ospetsuen  
aipamenak;  
haien fikzioetatik eri banago ere,  
belar sekretuak dakartzate  
darien zaporeek;  
Hari bakarrik gomendatzen natzaio,  
Hari bakarrik hel egiten diot nik  
zinez,  
mundu honetan bizi zela,  
ez baitzuen munduak ezagun izan  
haren dibinitatea.

5

Mundu hau bidez dago  
besterako, atsekaberik gabeko  
egoitza dela;  
baina behar da zentzu ona  
eguneko bidean ez ibiltzeko  
alderrai;  
jaio orduko abian gaude,  
bizi artean gabiltza,  
eta hil ahala  
heltzen gara;  
beraz, hil ondoren  
datorkigu atsedena.

6

Ona izango zen mundua  
hartaz baliatu bagina  
behar bezala,  
zeren, gure fedearen legez,  
zain dugun bestea  
baita irabaztekoa.  
Jainkoaren semea ere  
jaitsi zen hona  
gu zerura igotzeko;  
gure artean jaio,  
ta lur honetan bizi izan zen  
hil arteraino.

7

Gure esku balego  
gorputzaren aldea  
eder bihurtzea,  
arima lorioso,  
aingerutarra egiten

dugun heinean,  
bai arreta bizia  
erakutsi orduoro,  
ta hain gertu  
arima prestatu,  
andrearen nahasmendu  
osorako!

8

Ikus zeinen funts gabeak  
diren korri eta presaz  
lehiatzeko diren gauzak,  
mundu traidore honetan  
hil baino lehen  
galduta ditugu-eta.  
Adinak oro desegin,  
oro ezbehar  
bilakatu,  
oro, ororen kalitatea,  
goren mailatik  
jaisten du.

9

Esaidazue: edertasuna,  
aurpegiko freskotasuna eta  
larruazala,  
zahartutakoan,  
non dira?  
Gaztaroko  
mainak eta arditeak  
eta gorputz-indarra,  
astunak dira gaur-gero  
zahartzaro-auzotik  
hurbilera iritsiz gero.

10

Zeren godoen odola,  
eta goragoko  
leinuru eta nobleziak  
hainbeste modu ta bidetan  
galtzen da harrotasuna  
bizitza honetan!  
Batzuk, gutxi balio ta,  
zeinen baxu eta eskas  
ustez izanik;  
beste batzuk, ez izateagatik,  
ez-legezko ogibidean  
dute sari.

11

Nahiak eta altxorrek,  
ez-orduz uzten gaituztela  
nork jarri ezbaian?  
tinko irauteko  
hori bai banalkeria  
andre apetatsu batenak  
baitira;  
Fortunaren ondasunak  
bere gurpil lehiatsuaz  
irauliak,  
bakarra izan ezinik  
ez egonkor ez geldi egon  
eta besterik.

12

Diot, berriz, lagun egiteko  
eta hilobiraino heltzeko  
nor bere jabe:  
beraz, ez gu engania  
bizitza azkar baitoa  
ametsetan;  
eta hemengo atseginak  
atsegin artean dira  
aldi baterakoak,  
eta hango oinazeak,  
zain ditugunak berariz,  
betierekoak.

13

Dugun  
bizitza landu honen  
plazerrak eta atseginak,  
zelatariak dira besterik,  
eta heriotza  
erori garen zelata.  
Gure kalteari erreparatu gabe,  
korrika-zoroan goaz  
geldi gabe;  
engainuaz ohartuta  
buelta eman nahi, bai,  
baina ezin.

14

Errege boteretsu haiek  
joandako idazki-bidez  
helaraziak,  
jazoera triste, tamal,  
ziren bilakatu  
hain fineko patu;

indar nahikorik ez hartaz:  
aita santu eta enperadore  
eta prelatuak,  
halaxe darabilzkit Heriok,  
ganaduzale gaixoen  
pare.

15

Utz troiatarrak  
horien kalterik ezkenuen ikusi,  
ezta haien loriarik ere;  
utz erromatarrak,  
horien idazki eta istorioen  
berri badugu ere,  
ez arduratu jakiten  
iragan mende hartaz  
zer izan zen;  
gatozen atzokora,  
hura ere ahazten baita  
oro legez.

16

Zer izan da Joan errege txit gorenaz?  
Aragoiko Infanteez  
zer izan zen?  
non dira galai haiek,  
non da horien  
asmamen oparoa?  
Justak eta torneoak,  
apaindurak, brodadurak  
eta gandorrak,  
denbora-pasak ote?  
gehiago akaso  
larraineko ereintzak baino?

17

Zer izan da damatxo lirain haiez,  
haien kapeluez, jantziez,  
haien lurrinez?  
Non dira maitaleen  
sugar piztuen  
garrak?  
Non dira troba-soinuak,  
musika akordatuak  
jo ta jo errepikatuak?  
Non da dantza zoroa,  
eta gainean jantzitako  
arropa politt naroak?

18

Beste hura, oinordekoa,  
On Enrike, zein ahaltsua  
baitzen!  
Zeinen erraz, zeinen fidaturik,  
uste zuen munduaz  
baliatuko zela!  
Ikusiko duzue, ordea, zeinen  
etsai, zeinen anker  
begitandu zitzaion;  
adiskide-mina izanik,  
zeinen gutxi iraun zion  
ametsak!

19

Opari eskuzabalak,  
errege-jauregiak  
urrez gainezkakoak,  
Baxera izerdiz landuak,  
urre-sosak eta txanponak  
altxorrekoak;  
Zaldiak eta hauen apainak  
horretan jendeak maiz  
erabili ornamentuak,  
nora joko dugu bila?  
zer izan ziren zelaietako  
ihintza baina?

20

Zeren haren anaia errugabea,  
bizi artean oinordekoa  
deituta,  
hura bai gorte bikaina  
eta zenbat handiki eta jaun  
izan zituen itzal!  
Aldiz, hura ere hilkorra izanik,  
sartu zuen Heriok gero  
bere sutegian.  
Oi, jainkozko epaia!  
sua txinpartaka ari zela,  
jaurki zenuen ura.

21

Zeren Kondestable handi hura,  
lehenetako maisua  
izan genuena,  
ez du merezi hartaz mintzatzea,  
lepamoztuta nola ikusi genuen  
ez bada.  
Haren altxor ugariak,  
haren konterri eta hiriak,

haren aginte luzea,  
zer dira negarrak baizik?  
zer dira atsedeen-arrazoi  
haiek uztean?

22

Zeren beste bi anaiak,  
hain adur onekoak  
errege gisa,  
goikoak eta ertainekoak  
beren legeen azpian  
menderatuta;  
ongizate hura guztia  
hain goratua eta  
laudatua,  
argia baino al zen izan  
zenbat-ta piztuagoa  
ordun-ta itzaliagoa?

23

Hainbeste duke bikain,  
hainbeste markes eta konde  
eta handiki  
hain boteretsu zirenak,  
erran, Heriotza, nun dituzu ezkutatu  
eta lekualdatu?  
Eta haien balentria ospetsuak  
gerran eta bakean  
lortuak,  
zu, anker hori, sumintzen zarenean,  
zure indarraz abaildu  
ta desegiten dituzunak.

24

Oste kontagaitzak,  
zutoihalak eta ikurrak  
eta banderak,  
gaztelu eskuragaitzak,  
gotorleku eta murreak  
eta eragozpenak,  
hobi sakon, txapatua,  
edo beste erreparo,  
zertan da lagun?  
haserre zatozenean,  
alderik alde zeharkatzen duzu dena  
zure geziaz.

25

Zintzoen aterpe zen hura,  
birtutetsuagatik maite zuena

jendeak,  
on Rodrigo Manrique  
maisua, hain ospetsua  
eta hain ausarta zena;  
haren egintza handi eta garbiak  
zertarako nik laudatu,  
jakinak diren heinean  
ez ditut gehitu beharrik,  
denek bai baitakite  
nolakoak zituenak.

26

Lagunen lagun hoberik!  
Mirabeen eta sendien  
jaun hoberik!  
Hura etsaia etsaientzat!  
Hura maisua saiatu ta  
ausartientzat!  
Zeinen zuhurra zuhurrentzat!  
Zeinen argia argientzat!  
Haren burua!  
Haren ontasuna behekoekin!  
Suminkor eta mingarriekin,  
hura lehoia!

27

Oktavianoren patu bera;  
Julio Zesar garaitzen  
eta borrokatzen;  
birtutez, Afrikano;  
jakitez eta  
jardutez Anibal;  
onginahian, Trajano bat;  
Tito bezain eskuzabal  
eta alai;  
ukabilez, Aureliano;  
Marko Tulio, agindutako  
egia-bilazale.

28

Antonio Pio urrikian;  
Marko Aurelioren ideiekin  
bat;  
Adriano, mintzo ederra izanik;  
Teodosio gizatasun  
eta gogo onean.  
Aurelio Alejandro zen  
gerrako  
diziplinan eta laztasunean;  
Konstantino, fedean,

Kamilo, lurrari zion  
maitasunean.

29

Ez zuen altxor handirik utzi,  
ezta ere aberastasun  
ez ontziteria ugari;  
gerratan bai ordea mairuei,  
haien gotorlekuak eta  
hiriak irabazi;  
eta borroka garbietan  
zenbat mairu eta zaldi  
zituen galdu;  
eta hala lortu zituen  
eman zizkioten  
basailuak eta errentak.

30

Zeren ondraz eta egoeraz,  
joandako garaietan  
nola atera zen aurrera?  
Babesik gabe geratuta,  
anaiez eta jipuez  
zen baliatu.  
Egindako  
guda aipatu horretan  
ekinaldi ospetsuen ostean,  
ohorezko itunak sinatuz  
zuen baino  
eskuan lur gehiago.

31

Honelako ele-zaharrak  
hark berak sortuak  
bere gaztaroan,  
garaipen berriekin  
berritu zituen gero  
zahartzaroan.  
Hain gizon trebea izanik,  
ongi usatutako  
merituz eta adinez,  
duinaren jabe  
lortu zuen  
Zaldunen Burdiñe.

32

Eta herriak eta lurrak  
nola kausitu zituen  
tiranoz beterik;  
hala, setioz eta gerraz

eta bere eskuen indarrez  
zituen irabazi.  
Zeren gure Errege jatorrak  
burututako egintzengatik  
zerbitzua jaso bazuen,  
erran beza Portugalekoak  
eta Gaztelakoak haien alde  
egin zuena.

33

Legearen izenean  
hainbat alditan bizia  
jokoan jarrita;  
zinezko  
erregetzat zeukanaren koroa  
hain ongi zerbitzatu ondoren;  
zenbatzerik ez dagoen  
horrenbeste balentria  
gogoan utzita,  
Ocañako bere herrian  
Herio joan zitzaion  
bila,

34

esanez: “Zaldun on horrek,  
utzi mundu faltsu hau  
eta dituen laudioak;  
zure bihotz burdinaz landuak  
erakuts beza  
ospetsua den kemena  
trantze honetan;  
eta bizitzan eta osasunean  
hain gutxi zenuena  
ospea dela-eta,  
bultza birtutea  
deika ari zaizun iraina  
jasatera.”

35

“Ez dadila latza izan  
zain duzun  
borroka beldurgarria,  
uzten diguzu  
ospe loriosoaren orde  
bizitza luzeagoa oparitan,  
nahiz ohorezko bizitza hau  
ez eternala  
ez egiazkoa ez izan;  
halere,  
gorputzarena,

iraungitzen denarena,  
baino bai askoz hobea.”

36

“Betiereko bizitza  
ez da haragizko entseiu  
irabazten,  
ezta ahuleziaz saiitzen ere  
infernuko  
bekatuak nagusi diren lekuan;  
Fededun zintzoak, ordea,  
otoizka  
eta negarrez dira horren jabe;  
zaldun ospetsuak,  
mairuen aurka  
saia ta paira.”

37

“Gizon argia zaren zuk,  
jentilen hainbeste odola  
isuri ondoren,  
itxaron zazu saria  
mundu honetan baituzu irabazi  
zure eskuekin;  
eta horretaz fidaturik,  
eta daukazun  
fedehandiak lagun,  
zoaz itxaron onean,  
hirugarren bizitza  
ziur baituzu jabetzan.”

(Maestreak erantzuten du)

38

“Ez dezagun denborarik gasta  
bizitza zirtzil honetan  
horren kariaz,  
nire borondatea bat  
baitator Jainkoarenarekin  
edozeretan;  
eta ontzat dut nire heriotza ematen  
borondatez ta atseginez,  
argi eta garbi,  
inork bizi nahi izatea  
Jainkoak nahi ez duela,  
erokeria da-eta.”

OTOITZA

39

“Zu, gure gaiztakeriaz  
jopu-itxura hartu zenuena  
eta izenpean;  
zu, zure jainko-izaerari  
gizakia den  
ezdeusa hartuta;  
zu, hain oinaze itzelak  
txintik gabe jasan zenituena  
zugan,  
ez nire merituengatik,  
baina urriki hutsagatik,  
zu, barkatzen nauzuna.”

### AMAIERA

40

Hala, entelegu horrekin,  
giza-zentzumen guztien  
jabe zela,  
emazteaz  
eta seme-alabez eta anai-arrebez  
inguratuta,  
arima eman zion eman zionari  
(zeruan jartzeko,  
horren lorian),  
bizia galduta ere,  
haren oroitzak  
kontsolatu baikaitu gainez.